



Arartekoaren 2019R-380-17 Ebazpena, 2019ko uztailaren 1ekoa. Horren bitartez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen zaio berriz azter dezala herritar bati diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria iraungi izana, erabaki hori hartzeko arrazoirik ez dagoela-eta.

Aurrekariak

2017ko otsailaren 27an, herritar batek aurkeztutako kexa onartu zen izapidetzeko. Horren bitartez, interesdunak —prestazioen titularra zen— Arartekoaren esku-hartzea eskatu zuen, Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria **iraungi** zizkiolako.

Interesdunak bere kexan azaldu zuen diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria jasotzen zituela, eta, une horretan ezkontidearekin osatzen zuela bizikidetz-unitatea; familia berriz elkartzeko prozesua abiarazia zuten zuela gutxi, eta ume bat izango zuten laster. Ordura arte, bai eta lehendik ere, diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria jasotzen zituen kexagileak, pertsona bakarreko bizikidetz-unitatea osatzen zuelarik. Logela bat azpierrentan hartua zuen, etxe berean, eta beste logela batean beste pertsona bat bizi zen, alokairuan. Hala ere, interesdunaren emaztea heldu zenean (ordura arte jatorrizko herrialdean zegoen), beste errentariak etxez aldatzea erabaki zuen, eta kexagileak horren berri eman zuen Lanbiden. Hori dela eta, 2016ko abuztuaren 1ean, kexagileak etxebizitza beraren beste errentamendu-kontratu bat sinatu zuen, eta hura Lanbiden aurkeztu zuen. Halaber, bizikidetz-unitatearen osaera berria jakinarazi zion erakunde publikoari.

Hala ere, 2017ko abenduaren 22ko ebazpen bidez, Lanbidek kexagileari jakinarazi zion **aldi baterako eten** ziola diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria eta etxebizitzarako prestazio osagarria jasotzeko eskubidea, arrazoi hau zela-eta:

- *“Titularraren ohiko bizitokiari dagokion edozein aldaketa gertatu eta gehienez ere hamabost egun naturaleko epean ez jakinataszea.*
- *Dagokion modalitatean, Diru-sarrerak bermatzeko errentaren titular gisa dituen beharrekook diren guztiak, ez betetzea.*
- *Etxebizitza Prestazio Osagarria jasotzeko eskubidea eten egiten da Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta eteten denean, haren osagarri baita (sic)”*

Horrekin bat ez zetorrela adierazte aldera, interesdunak **aukerako berraztertze errekurtsoa** aurkeztu zuen, zegokion epean eta moduan —hala egiaztatzen du Lanbideren 2017/3923 egiaztagiria—.

Kexagileak bere errekurtsoan azaldu zuen ez ziola Lanbideri inguruabar horren berri eman araudian ezarritako epean, hain zuzen ere, ez zuelako horren berri. Zehatzago esanda, **etxebizitzaren jabeak ez ziolako jakinarazi pertsona hori erroldatzea erabaki zuenik**. Dirudenez, jabeak pertsona hori erroldatzeko baimena eman zuen ez zelako konturatu horrek kexagilearen bizikidetz-unitateari —harrezkero etxebizitzan bizi zen— kalte egin ziezaiokeela. Hori dela eta, etxebizitzaren jabeak zinpeko deklarazioa egin zuen, egitateak azalduz eta erantzukizuna bere gain hartuz, eta Lanbiden aurkeztu zuen.

Hala ere, Lanbidek ezetsi egin zituen argudio horiek. Gainera, horren aurretik ere kexagileak





etenda izan zituen prestazioak, eskaera-eskatzaileari alta emateko eta hura berritzeko agiria (DARDE) behar zen garaian ez berritzeagatik. Beraz, prestazioaren bi urteko indarraldian kexagileari ezarritako **bigarren etetea** izanik, Lanbidek 2016ko abenduaren 21ean kexagileari jakinarazi zion **prestazioak iraungitzeko** prozedura abiarazi zuela (2016/REV/119323), arrazoi hau zela tarteko: *“Prestazioaren indarraldian (bi urtez) betebeharrak bi aldiz etenda egotea. (gizarteratzeko eta Diru-sarrerak Bermatzekoari buruzko 18/2008 abenduaren 23ko Legearen 28.1.e artikulua)”* Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Legearen (18/2008, abenduaren 23koa) 28.1.e. artikulua aplikatuz.

Kexagileak, prestazioak iraungi izanarekin bat ez zetorrela adierazte aldera, **alegazioak** aurkeztu zituen 2017ko urtarrilaren 17an, eta horien bitartez onartu zuen prestazioak lehenengo aldiz eteteko arrazoiaren erantzule zela, baina ez bigarren aldiz eten izanarena; izan ere, alde batetik, ez zuen bigarren etetea eragin zuen inguruabarraren berri —beste pertsona bat etxean erroldatu izana—, eta, bestetik, uste zuen ez zela bere betebeharra diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren onuradun gisa —maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 12. artikuluan daude araututa betebeharrak— jakinaraztea beste pertsona bat erroldatu izana berak alokatuta zuen etxebizitzan, ez zuelako izan horren berri eta pertsona hori ez zelako etxean bizi.

Arartekoak kexa izapidetzeko onartu zuen, 2017ko otsailaren 24an, eta, horren ondoren, mahaigaineratutako kexa behar bezala izapidetze aldera, **informazio-eskaera** egin zion **Lanbideri**.

Lanbideko zuzendari nagusiak xede horretarako **prestatutako txostenaren** bidez, eskatutako informazioa helarari zigun erakunde horrek.

Hona hemen txostenean adierazitakoa:

- *Interesdunaren espedientea aztertu ondoren, honako hau jakinarazten dugu:*
- *Erreklamatzailerak 2010/RGI/006608 espedientearen titularra da.*
- *Espedientearen titularrak errentamendu-kontratua sinatu zuen Zumalakarregi etorbideko 51. zenbakiko 1. eskuinean dagoen etxebizitzaren errentari bakar moduan 2016/08/01ean.*
- *2015eko urriaren 13an, Nour Eddine Sahcahe erroldatu zela jakinarazi zion Lanbideri, baina erroldatze hori 2015eko abuztuaren 27an gertatu zen. Hau da, jakinarazpena ezarritako 15 eguneko epekan kanpo egin zuen. Orduko hartan ez zen neurririk hartu, baina ohartarazi zitzaion titularra bizi den etxean gertatzen diren aldaketa guztiak jakinarazi behar dituela.*
- *2016/04/06tik 2016/11/25era arte, 2010/RGI/006608 espedientearen titularrak errentan hartutako etxebizitzan erroldatuta agertzen da Alex Jordan Berna! (AIZ: X6654542 K).*
- *147/2010 Dekretuaren 12.f 3 artikulua xedatzen du titularren betebeharra dela hauek jakinaraztea:*



f.3. - Prestazioa onartzeko eskatutako baldintzaren bat aldi baterako edo behin betiko galtzea ekar dezakeen beste edozein gertakari edo egoera.[. ..]:

g) Titularraren ohiko bizilekuari buruzko edozein aldaketa jakinaraztea, hori gertatzen denetik zenbatzen hasi eta hamabost egun naturaleko gehieneko epean, Gizarteratze Hitzarmenean aurreikusi diren berezitasunak, halakorik baleude, bazter utzi gabe."

Hau da, aldaketa horien artean ez da bakarrik sartzen ohiko bizilekuaz aldatzea, bai eta bizileku horri dagokion aldaketa oro ere, hala nola, besteak beste, etxe horretan bizi diren pertsonen kopurua edo identitatea aldatzea eta aldi baterako aldaketak, eragina izan dezaketelako laguntza mantentzeko eta/edo aldatzeko baldintzak betetzen diren erabakitzean (bizikidetzaren unitatearen osaerari buruzko baldintzak, baliabide ekonomikoaren eta ondarearen zenbatespena, edo errolda eta bertan benetan bizitzea). –

Lanbideek horrelako egoeretan erabilitako irizpideek honako hau xedatzen dute:

"Erroldak beti adierazi beharko du etxebizitzaren egoera erreala. Horrenbestez, etxebizitzan benetan bizi diren pertsona guztiak erroldan erregistratuta egon behar dute eta, halaber, etxebizitzan bizi ez den inor ere ezin da egon etxebizitza horretan erroldatuta.

Horrez gainera, errentamendu- edo azpierreantamendu-kontratuen titular edo titularkide guztiak etxebizitza horretan erroldatuta egon behar dute eta etxebizitza horrek izan behar du haien benetako bizitokia. Horri dagokionez, ez da onargarria erroldan ageri ez den edo etxebizitzan bizi ez den pertsonaren bat errentamendu-kontratuan agertzea.

Gainera, Lanbideek honako hau adierazi zuen bere erantzunean:

"Kontuan hartu behar da arestian aipatutako muturrak ezinbestekoak direla EAEn erroldatuta egoteko eta EAEn benetan bizitzeko baldintzak betetzen direla frogatzeko ez ezik, bizikidetzaren unitatea osatzeko baldintza betetzen dela frogatzeko ere, bizikideen ezkon-ahaidetasunaren eta edo/ahaidetasunaren maila egiaztatu behar baita (147/2010 Dekretuaren 5.1.b artikulua), bai eta errentamendu-kontratua dutela egiaztatu ere (147/2010 Dekretuaren 5.1.c artikulua)."

Nolanahi ere, Lanbideek honako hau esan zuen:

Horregatik guztiagatik, erroldaren eta benetako bizitokiaren artean inkongruentziaren bat badago, prestazioa ukatu edo azkendu egingo da, lehen adierazitako baldintzak ezin egiaztatu ahal izateagatik."

Azkenik, 2017ko maiatzaren 10eko ebazpen bidez, Lanbideek ezetsi egin zuen kexagileak 2016ko abenduaren 17an bigarren etetearen aurka jarri zuen errekurtsioa.

Gogoetak

1. Diru-Sarrerak Bermatzeko Errentari buruzko 147/2010 Dekretuaren 12. artikulua ezartzen du diru-sarrerak bermatzeko errentaren titularrek, prestazio ekonomiko hori jasotzeko eskubidea gauzatzen dutenean, prestazioaren modalitatea edozein dela ere, honako



betebehar hauek izango dituztela:

“(..).f. Prestaziorako eskubidea aldatzea, etetea edo azkentzea ekar dezaketen eta ondoren adierazten diren gertakariak sortzen diren unetik aurrera zenbatzen hasi eta gehieneko hamabost eguneko epean udalari gertakari horien berri ematea:

*f.1. – Bizikidetzaren unitatearen osakeran eragina duten gertakariak, eta edozein kasutan:
(...)*

Bizikidetzaren unitatearen osakeran eragina duen beste edozein aldaketa.

Azaldutakoagatik, ez dugu ahaztu behar interesdunak bere ekimenez jakinarazi zuela Lanbiden bere bizikidetzaren unitatearen osakera aldatu egin zela, diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren onuradun gisa zituen betebeharrak betez. Beraz, azpimarratu beharra dago une oro izan zela arduratsua, eta administrazioarekin lankidetzan aritzeko prest agertu zela.

2. Hala ere, Lanbidek adierazi zuen herritar horri prestazioak aldi baterako eten zizkiola, 2016ko abenduaren 17ko ebazpen bidez (2016/REV/106230), ez zuelako jakinarazi, 15 egun naturaleko gehieneko epean, pertsona bat bere etxebizitza berean errolatu izana. Aitzitik, kexagileak ez zekien pertsona hori etxean errolatuta zegoenik, eta, hura, gainera, ez zen han bizi. Egia esanda, prestazioak eten zizkion ebazpena jaso zuenean izan zuen kexagileak inguruabar horren berri, eta, harrezkero, emaztearekin bakarrik bizi zen etxebizitza horretan, alokairuan.

Ebazpena jasotakoan, etxearen jabearekin jarri zen harremanetan. Orduantxe jakinarazi zion jabeak inguruabar hori, eta adierazi zion ez zekiela pertsona hori errolatu izanak aipatutako ondorioak izango zituenik interesdunaren bizikidetzaren unitatearengan; are, borondatez eskaini zuen bere burua Lanbideri egitateak idatziz argitzeko, zinpeko deklarazioa aurkeztuta, bere gain hartuz izapide hori egin izanaren eta kexagileari egitate horren berri eman ez izanaren erantzukizuna. Hori guztia, bai alegazio-fasean bai errekurtsio-fasean.

Inguruabar hori ezin zaio kexagileari egotzi, erabaki hori bere esku-hartze eremutik kanpo baitago. Jabearen jokaerak ekarri du beste pertsona bat etxebizitzan errolatuta egotea; izan ere, berak eman du pertsona hori errolatzeko baimena, eta, gainera, ez dio inguruabar horren berri eman errentariari —hark ez du erabakitze ahalmenik—. Aitzitik, Arartekoaren 2016R-661-16 Ebazpenean³, 2016ko ekainaren 27koan⁴, adierazi genuenez, horrek ekarriko luke diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria jasotzeko eskubide subjektiboa aitortzeari eta hari eusteari lotutako beste betebehar bat “ex novo” sortzea, behar adinako lege-oinarririk ez duena eta gehienetan kexagileen —kasu honetan, gizarte-bazterketako egoeran daude— jardun-eremutik eta erabakitze ahalmenetik aldentuta dagoena.

3. Horren guztiaren ondorioz, eta aurretik ere prestazioak aldi baterako —hilabetez— eten zitzaizkionez, prestazioen bi urteko indarraldian, DARDEa berritzea ahaztu zitzaielako, Lanbidek erabaki zuen diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria iraungitzea ez ezik prestazioak urtebetez berriro eska zitzala debekatzea, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Legearen (18/2008, abenduaren 23koa) 28.1.e. eta 3. artikulua aplikatuz —azaroaren 24ko 4/2011 Legeak emandako idazketan—

³ www.ararteko.eus

⁴ http://www.ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1_3973_1.pdf



Hortaz, prestazioaren etete zehatz batek eta Lanbidek kexagilearen betebeharraren gehiegizko interpretazioa egin izanak (egitate bat gehenez ere 15 egunean jakinarazi behar zuela, interesdunak ez zuen horren berri ez izan arren) eragin zuen bizikidetz-unitate bati diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria jasotzeko eskubide subjektiboa iraungitzea; gizarte-bazterketako egoeran zegoen familia, emaztea haurdun zegoen, eta, biak langabezian zeudenez, ez zuten beste diru-sarrerarik oinarritzko premiak asetzeko.

Hori guztia dela eta, erakunde honen iritziz, Lanbidek prestazioak bigarren aldiz eten izanak, 147/2010 Dekretuaren 43.2.a) artikulua aplikatuz, ez du lege-oinarririk, eta, beraz, ezin zaio diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria jasotzeko eskubidea iraungi, 28.1 e) artikuluan xedatutakoa aplikatuz, eta, halaber, ezin zaio debekatu diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria urtebetez berriro eska ditzala (28.3. art.).

Azaldutako guztiagatik, eta otsailaren 27ko 3/1985 Legeak —erakunde hau sortu eta arautzekoak— 11.b) artikuluan agindutakoaren arabera, honako gomendio hau egiten zaio Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari:

GOMENDIOA

Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen zaio berriz azter dezala herritar bati diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria iraungi izana, erabaki hori hartzeko arrazoirik ez dagoela-eta.

